

# NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK ETA GIZA ESKUBIDEEN MEKANISMOAK *ikuspegi feminista batetik*

GIH & HRC

Women's Major Group

## Garapen Iraunkorrerako 2030

**Agendak**, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izenez ere ezagunak, mundu mailako 17 helburu jasotzen ditu, elkarri lotuak eta berariaz diseinatuak "ekintza plan bat aurrera eramateko eta guztientzat etorkizun hobe eta iraunkorragoa lortzeko". Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu zuen 2015ean, eta asmoa da helburuak 2030erako betetzea.

Aldizkako Azterketa Unibertsalak (AAU), GIHen prozesuek ez bezala, bideratze-mekanismo bat eta egitura bat eskaintzen ditu, gobernuek giza eskubideekiko hartu dituzten konpromisoen inguruan kontu-emateko lanak egiteko.

Aldizkako Azterketa Unibertsala, hain zuzen ere, unibertsala denez, eta barnean hartzen dituen giza eskubideak eta ingurumen nahiz garapen arloetako auziak askotarikoak direnez, GIHen barneko helburu eta helmuga guztiak jaso daitezke AAUren prozesuan.

2030 Agenda egiaz "atzean inor utzi gabe" eramango bada aurrera, gobernu guztiak aplikatu, inplementatu eta babestu behar dituzte giza eskubideekiko betebeharrak eta konpromisoak.

ZER DA GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA (HRC)?

Giza Eskubideen Batzordea (HRC, ingelesez) Nazio Batuen sistemaren barneko gobernuarteko organo bat da, 47 estatuz osatua (estatuak txandakatu egiten dira), eta giza eskubideak mundu osoan bultzatzeko eta babesteko ardura du. Hori lortzeko, hainbat **organo**, **prozesu** eta **mekanismo** erabiltzen ditu, eta horiek dira HRCren lanaren oinarria.

ZER DIRA GIH-AK?

ZER DA GIH-EN ETA HRC-REN ARTEKO LOTURA ETA INTERAKZIOA

ZER DIRA HRC-REN FUNTSEZKO 2 MEKANISMOAK EDO ROLAK?

## ALDIZKAKO AZTERKETA UNIBERTSALA

**Aldizkako Azterketa Unibertsala (AAU)** gobernuarteko prozesu bat da, HRCK egiten duena, NBEko kide diren estatu guztietako giza eskubideei buruz erregistratutako guztia aztertzeke. Lau urte eta erdiko aldi behin, kide diren estatu guztiak aztertzen ditu lantalde batek (funtsean, Giza Eskubideen Batzordeko kide diren 47 estatu kideek osatzen dute lantaldea). Gizarte zibileko erakundeek, giza eskubideen instituzio nazionalak eta interesa duten bestelako alderdiek parte har dezakete azterketa-prozesuan, adibidez, aztergai den estatuak antolatzen dituen kontsulta nazionaletan parte hartuz, herrialdean giza eskubideek bizi duten egoerari buruzko informazioa igorri, kide diren beste estatu batzuk lantaldera erakarri, azterketa-prozesuan hitza hartuz, eta AAUk aztergai duen estatuari egiten dizkion gomendioen inplementazioa kontrolatuz eta lagunduz.

## PROZEDURA BEREZIAK

**Prozedura bereziak** HRCren mekanismoak dira; horien bidez, giza eskubideen aditu independenteak izendatzen dira, adibidez Errelatore Berezien postuetarako, Aditu Independenteen Ingurukidetarako, edo hainbat gai edo auziren inguruko lantaldeetarako. Une honetan, HRCK **gai zehatzak aztertzeke 44 mandatu** eta **herrialde zehatzak aztertzeke 11 mandatu** ditu abian. Aditu horiek norbanakoak edo taldeak izan daitezke, eta horien ardura da giza eskubideen urraketen azterketak egitea eta jakinaraztea, hala bai zehatzen ingurukoak nola aztertzeke agindu zaizkien herrialdeetakoak; horretarako, herrialdeetara bisitak egin ditzakete, norbanakoan salaketetan eta kasuetan ekintzak abiatu, urtean behin bai zehatzen inguruko azterketak egin, gizarte zibileko erakundeekin kontsultei erantzun, edo eragiteko ekintzak aurrera eramane, besteak beste.



## NORA JO DEZAKEZU?

**Emakumeen Talde Nagusiaren** eginkizunetako bat da gizarte zibileko erakundeek –giza eskubideen alde egiten dutenek, garapen iraunkorrean oinarrituta eta arreta emakumeen giza eskubideetan jarrita– NBEen parte-hartzea eta beren ekarpena egitea erraztea.

**UPR-Info** GKE bat da, Genovan egoitza duena; giza eskubideak sustatzeko AAuren prozesuan jarduten du lanean, eta AAUn sartzea errazten die gizarte zibileko erakundeek, giza eskubideen alde lanean ari diren pertsonak, giza eskubideen instituzio nazionalak, edota beste talde nahiz elkarte batzuei edo gizarte zibileko dozein kideri, baldin eta AAuren prozesua erabili nahi badute giza eskubideak sustatzeko eta babesteko bitarteko gisa.

**Giza Eskubideen Institutu Daniarra (DIHR, ingelesez)** giza eskubideen instituzio nazional bat da. Egoitza Danimarkan badu ere, eta hango parlamentuaren erabaki batez sortu bazen ere, egun DIHR mundu osoan ari da lanean, giza eskubideen beste hainbat instituzio nazionalekin batera, eta beste hainbat gobernu, gizarte zibileko erakunde eta enpresarekin, haien herrialdeetan giza eskubideak sustatzeko gaitasuna indartzeko asmoz.

## Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Giza Eskubideen Institutu Daniarraren Gidaliburuak

nabarmentzen du zer lotura duten GIHen helmugek nazioarteko nahiz eskualdeetako giza eskubideen aldeko tresna nagusiek, eta orobat, zer lotura dagoen nazioarteko lan-arloko estandarren eta ingurumen-arloko funtsezko tresnen artean.

**UPR-Info** erakundeak eskaintzen duen **datu-basean** AAuren gomendio guztiak eta hartutako borondatezko konpromisoak jasotzen dira zenbait kategoriatan: Aztertutako estatua, Gomendatutako estatua, Eskualdeko Taldea, Erakundea, AAuren zikloak, Gaikako auziak, eta Ekintza-mota.

## Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersex pertsonen Nazioarteko Elkartek (ILGA, ingelesez) badu AAUrako Tresnen Kit bat SOGIESC arloko gaietarako;

hain zuzen ere, gidaliburu bat da, sexu-orientazioaren, genero-identitatearen, genero-adierazpenaren eta sexu-ezaugarrien inguruko gaietan (SOGIESC) lanean ari diren aktibistentzat, AAuren prozesuan parte hartzen laguntzeko.



## KONTUAN HARTU BEHARREKO TRESNAK

**HRCren salaketa-prozeduran, informazio-eskuliburu** batek eta FAQ (galdera ohikoenak) atalak aukera ematen diete giza eskubideen urraketen biktime izan diren norbanakoei, taldeei edo GKE-ek urraketa horiek HRCn salatuzko, bai eta urraketen lekukotasun zuzen eta sinesgarria dutenei ere. Ez da beharrezkoa estatuek eskubideen hitzarmenik berretsita izatea, salaketa-prozedura horren arabera aztertutak izateko.

## MUGIMENDUEN AHOLKUAK

Herrialdeen AAuren azterketa-prozesuan, gizarte zibileko erakundeek txostenak, instituzio nazionalen txostenak eta interesa duten beste eragile batzuen txostenak onartzen dituzte, ez bakarrik aztergai diren herrialdeetakoak, baizik eta beste herrialdeetakoak ere bai, baldin eta aztergai den herrialdeak egindako ekintzaren ondorioz edo egin ez duen ekintzaren ondorioz beste herrialde horietan giza eskubideak urratu badira. Esaterako, giza eskubideen inguruan gobernuak dituzten lurraldez gaindiko betebeharren auzietan. Era berean, Prozedura Berezien mandatuen titularrek edozein unetan jaso ditzakete gizarte zibileko erakundeek aurkezpenak, komunikazioak eta salaketak, beren mandatuarekin lotura duen edozein auzirean inguruan.

Bai AAuren prozesuak, bai Prozedura Berezien mekanismoak, mekanismo eta metodo instituzionalizatuak eskaintzen dituzte gizarte zibileko erakundeentzat, beren herrialdeetan eta hainbat gairen inguruko auzietan giza eskubideen inplementazioa eta jarraipen-azterketa sartzen laguntzeko.

Herrialde guztiak ez dituzte konbentzio guztiak berretsi edo sinatu, eta batzuek ez dituzte Giza Eskubideen zenbait mekanismo ere aintzat hartzen. Hori dela eta, GIHak, onarpen unibertsaleko agenda zabalagoa direnez, sarbide egoki gisa erabil daitezke zure gobernuak oraindik berretsi ez dituen hitzarmen eta konbentzioetan jasotzen diren auzi eta hizkeretarako.

AAuren prozesuan lantzen diren giza eskubideen auziak askotarikoak izanik, gobernu bat aztertzen ari badira, dela AAuren bidez dela GIHen Borondatezko Azterketa Nazionalaren bidez, biak aldi berean edo une desberdinetan, emakumeen giza eskubideen aldeko erakundeek etekina atera dezakete azterketa horietatik, esaterako bi prozesuetarako txosten bera erabiliz, edo bi txostenak eginez modu osagarrian, edo bi azterketa horien arteko aldiak aldi berean izanez gero azken txostenaren erantsiz.